



EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANA (2019 - 2023)

ASISTENCIA TÉCNICA






	Orr.
1. SARRERA: Berdintasunaren alorrean egindako ibilbidea	3
2. LANTZE-PROZESUAREN METODOLOGIA	4
3. BEDINTASUNERAKO III. PLANA (2019-2023)	6
3.1. Egitura	6
3.2. Planaren hedapena	8
3.3. Baliabideak eta Adierazleak	16
3.4. Kudeaketa, jarraipena eta urteko plangintza	21



1. SARRERA: Berdintasunaren alorrean egindako ibilbidea

ITELAZPI, S.A.k ibilbide luzea egin du berdintasunaren alorrean. 2010ean hasi zen modu sistematikoan, eta ibilbide horretan mugarri hauek azpimarratu behar dira:






2. LANTZE-PROZESUAREN METODOLOGIA

ITELAZPIren Berdintasunerako II. Planaren (2015-2018) amaieraren eraginez, lan-prozesu bat gauzatu da 2018ko abenduan eta 2019 lehenengo lau hilabeteetan. **Prozesu** hori ITELAZPIren **Berdintasun Batzordeak bultzatu du**, OLYMPIA BERRIren aholkularitzarekin -aholkularitza-etxe honek Emakunderen homologazioa du enpresa eta erakundeei laguntza teknikoa emateko emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean-.

Lan prozesuak hiru fase nagusi izan ditu:



Ebaluazio eta **Diagnostikoaren** emaitza dagozkion txostenetan jaso da. Txosten horiek **informazio-iturritzat** hartu dira III. Planerako definitutako esku-hartzearen ardatzak, helburuak eta ekintzak identifikatzeko.



2. LANTZE-PROZESUAREN METODOLOGIA

Berdintasun Batzordeak prozesu osoan parte hartzeaz gain, azpimarratu behar da zenbait unetan **plantilla osoak ere parte hartu duela**, prozesuaren fase batean edo batzuetan. Parte-hartze horri dagokionez, honako ekintza hauek azpimarratu behar dira:

- Berdintasunaren alorreko gogobetetasunari buruzko **galdetegia, plantillaren % 100ari bidalia.**
- 4 emakumek eta 5 gizonek **Berdinbide Saioan** parte hartu zuten. Hau da, emakume guztien % 67k eta gizon guztien % 45ek.
- Plantilla osoaren lan-saioak, 3 taldetan banatuta,** Erakunde-kulturaren alorreko ahuleziak eta indarrak aztertzeko. (Erabilitako tresna: EMAKUNDEAREN LEAN_Genero Arrakala: Erakunde-kultura).

Halaber, Ebaluazioaren eramitzak, Diagnostikoa eta landutako Plana **plantilla osoari jakinarazi zaizkio.**



3. BERDINATSUNERAKO III. PLANA (2019-2023)

3.1. EGITURA

ITELAZPIren emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. Planerako (2019-2023), 4 esku-hartze ardatz definitu dira :





3. BERDINTASUNERAKO III. PLANA (2019-2023)

Esku-hartze ardatz horietako bakoitzak bere Helburu eta Ekintzak ditu, egitura honen arabera:

ESKU-HARTZE ARDATZA

- **HELBURUAK** (Baliabideak eta Adierazleak)
- **EKINTZAK**
 - ⑩ Arduraduna
 - ⑩ Kronograma



3. BERDINTASUNERAKO III. PLANA (2019-2023)

3.2. PLANAREN HEDAPENA

1. ARDATZA: BERDINTASUNERAKO KULTURA ETA KUDEAKETA								
HELBURUAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	KRONOGRAMA					
			2019	2020	2021	2022	2023	
1.1. Berdintasunezko erakunde-kultura bat sustatzea	1.1.1. BAI SAREAren baitan berdintasunezko kulturaren autodiagnostikorako landutako tresna aplikatzea. Jarduerak emaitzen arabera identifikatzea eta planifikatzea.	Berdintasun Batzordea			█			
	1.1.2. Zereginen eta arduren (zeregin ez-teknikoak, prozesuak, eta abar) asignazioa aztertu eta argitzen duen barneko lantalde bat dinamizatzea. Estereotipoetan oinarritutako asignazioaren inguruko ustea apurtzea, barneko jarraibide eta irizpideak ezarri.	Zuzendaritza (Lantaldea: Sail teknikoko ordezkariak)		█				
1.2. Berdintasunerako sarea konpartitzea eta bertan parte hartzea	1.2.1. EMAKUNDEk bultzatzen duen Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Erakunde Publikoen Sarean parte hartzea: Jardunbide egokiak konpartitzea eta/edo integratzea, bileretara joatea, ...	I.SM.		█				
	1.2.2. EMAKUNDEk sustatutako BAI SAREAn parte hartzea: hartutako konpromisoak betetzea, Talde Eragilean parte hartzea, beste lan-batzorde batzuetan integratzeko aukera baloratzea,...	MJ.G.		█				
	1.2.2. Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko STTaren (Saileko Talde Teknikoa) lan-saioetara eta dinamiketara joatea. Sailaren Programaren baitan bultzatzen diren ekintzetan integratzeko aukera baloratzea, hala dagokionean.	I.SM.		█				



3. BERDITASUNERAKO III. PLANA (2019-2023)

1. ARDATZA: BERDITASUNERAKO KULTURA ETA KUDEAKETA

HELBURUAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	KRONOGRAMA				
			2019	2020	2021	2022	2023
1.3. Berdintasunerako Plana kudeatzea eta bultzatzea	1.3.1. Berdintasun Batzordea indartzea, ahalik eta langile gehienen parte-hartzearekin. Kontrol-saioak mantentzea.	Zuzendaritza	[Barra gris]				
	1.3.2. Planean sartutako ekintza eta adierazleen jarraipen-sistema egitea.	MJ.G.	[Barra gris]				
	1.3.3. Planaren emaitzak plantillari aldizka jakinaraztea, lortutako emaitzak azpimarratuz.	Berdintasun Batzordea	[Barra gris]				



3. BERDINTASUNERAKO III. PLANA (2019-2023)

2. ARDATZA: PERTSONEN KUDEAKETA

HELBURUAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	KRONOGRAMA				
			2019	2020	2021	2022	2023
2.1. Emakumeak alor teknikora iristearen alde egitea, ITELAZPIra sartzeko prozesu teknikoan bidez	2.1.1. Aukeraketa-prozesuen jarraipen-sistematika mantentzea: sartzeko irizpideen balorazioa, ekintza positiboaren balorazioa (lanpostuaren eta ordezkagaitasunaren %aren arabera), hizkuntza ez-sexistaren erabilera, parte-hartzaileen jarraipena sexuaren arabera (fase guztietarako), ordezkagaitasun-oreka azken erabakian, eta abar.	Berdintasun Batzordea	[Barra horizontala]				
	2.1.2. Prestakuntza-zentroekiko harramanak indartzea, emakumeak erakartzeko praktiketarako eskaintzen diren lanpostuetara (batez ere alor teknikoan).	I.P. + R.L.	[Barra horizontala]				
	2.1.3. Gure ingurunean emakumeak Zientzia eta Teknologiaren alorrera sartzearen alde egiten duten eragileek (Unibertsitatea, parke teknologikoak, lanbide heziketako zentroak,...) bultzatzen dituzten ekimenetan parte hartzea.	Zuzendaritza + R.O.	[Barra horizontala]				



3. BERDINTASUNERAKO III. PLANA (2019-2023)

2. ARDATZA: PERTSONEN KUDEAKETA

HELBURUAK	EKINTZAK	ARDURADUNAK	KRONOGRAMA				
			2019	2020	2021	2022	2023
2.2. Berdintasunezko prozesu bat bermatzea barne-promoziorako	2.2.1. Promozio-prozesuen jarraipen-sistematika mantentzea: ekintza positiboen balorazioa; aplikatzekoak diren irizpideen azterketa; emakumeen eta gizonen parte-hartzearen azterketa sistematikoa; erabakian izandako parte-hartzea , sexuen arabera desagregatuta, eta abar .	Zuzendaritza + P.F.	[Bar chart showing activity from 2019 to 2023]				
	2.2.2. Emakumeak maila estrategikoko posuetara iristearen alde egitea (zuzendaritzako postuak), posturen bat hutsik geratuz gero.	Zuzendaritza	[Bar chart showing activity from 2019 to 2023]				
2.3. Sexuagatik diskriminatzen ez duen ordainsari-sistema bat segurtatzea	2.3.1. Soldata-arrakalaren arrazoiak aztertzea.	Zuzendaritza + P.F.	[Bar chart showing activity from 2019 to 2023]				
	2.3.2. Soldaten batez bestekoaren jarraipena egitea aldizka, postu eta sexuaren arabera.	Zuzendaritza + P.F.	[Bar chart showing activity from 2019 to 2023]				



3. BERDINTASUNERAKO III. PLANA (2019-2023)

3. ARDATZA : SENTSIBILIZAZIOA ETA BERDINTASUNERA ZUZENDUTAKO TRAKZIOA

HELBURUAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	KRONOGRAMA				
			2019	2020	2021	2022	2023
3.1. Gure pertsonalaren prestakuntza eta inplikazioa sustatzea, berdintasunaren alorrean	3.1.1. Berdintasunari buruzko prestakuntza-ekintza espezifikoak sartzea prestakuntza-programan. Urtean lehentsunez landu beharreko gaiaren arabera planifikatu.	Berdintasun Batzordea	[Bar chart showing activity from 2020 to 2022]				
	3.1.2. Intranetaren bidez, honako hauek konpartitzea plantillarekin: enpresako e-mailak, albisteak, jardunbide egokiak, Erakunde Publikoen BAI SAREAn saioetan izandako presentzia, eta abar.	I.SM.	[Bar chart showing activity from 2020 to 2022]				
3.2. Berdintasunari begira arduratsua den kanpo-kontratazioa sustatzea	3.2.1. Kontratazio-pleguetan sartutako betekizun eta baldintzen jarraipenerako sistematika ezartzea. Emaitzak baloratzea.	Kontratazioa + Berdintasun Batzordea		[Bar chart showing activity in 2020]		[Bar chart showing activity in 2022]	
	3.2.2. Ezarritako irizpideak berraztertzea eta, hala badagokio, Eusko Jaurlaritzak argitaratutako jarraibide teknikora egokitzea (<i>"Kontratazio publikoan ordainketen berdintasunerako klausulak eta soldata arrakalaren kontrako neurriak", martxoan onartua</i>)	Zuzendaritza + J.J.M.	[Bar chart showing activity in 2019]				
	3.2.3. Berdintasuna gure enpresa hornitzaileetan, kolaboratzaileetan eta bestelakoetan sustatzen duten ekintzak bultzatzea (egoerari buruzko inkesta, komunikazioak,...)	Berdintasun Batzordea		[Bar chart showing activity in 2020]		[Bar chart showing activity in 2022]	



3. BERDINTASUNERAKO III. PLANA (2019-2023)

3. ARDATZA : SENTSIBILIZAZIOA ETA BERDINTASUNERA ZUZENDUTAKO TRAKZIOA

HELBURUAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	KRONOGRAMA				
			2019	2020	2021	2022	2023
3.3. Berdintasunaren aldeko sentsibilizazioa areagotzea gure jarduera-eremuan	3.3.1. Gure webguneko “Berdintasuna” atala aktibo mantetzea, eta albisteak sare sozialetan argitaratzea (twitter, Facebook,...)	R.O.	[Barra gris]				
	3.3.2. ITELAZPIk sustatzen dituen kanpo-jardueretan (ikastetxeen bisitak, zuhaitz eguna,..), emakumezko figura bat hitzaldi guztietan bistaratzeko politikari eustea. Berdintasunaren aldeko konpromisoa transmititzea ITELAZPIn	R.O. J.G.	[Barra gris]				
	3.3.3. Jarduera espezifikoak diseinatzea eta gauzatzea egun hauen inguruan: Martxoaren 8a, Azaroaren 25a eta otsailaren 11 (Emakumea eta zientzia)	Berdintasun Batzordea	[Barra gris]				
	3.3.3. Mahaiko egutegi bat bidaltzea urtero bezero eta hornitzaile diren enpreseei, eta hor berdintasunaren aldeko mezua bistaratzeko.	MJ.G.	[Barra gris]				
	3.3.4. Emakumeek teknologian duten presentzia handitu eta/edo bistaratu nahi duten ekintzak sostengatzea: “Emakumeak teknologian” argazki-lehiaketa, Inspira steam-en parte hartzea,...	Berdintasun Batzordea	[Barra gris]				



3. BERDINTASUNERAKO III. PLANA (2019-2023)

4. ARDATZA: LAN-INGURUNE OSASUNGARRI ETA ERANTZUNKIDEA

HELBURUAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	KRONOGRAMA				
			2019	2020	2021	2022	2023
4.3. Sexu-jazarpenik eta sexuak eragindako jazarpenik gabeko lan-ingurune bat bermatzea	4.3.1. Sexu-jazarpenari eta sexuak eragindako jazarpenari buruzko protokoloa berraztertzea eta eguneratzea.	Berdintasun Batzordea	■				
	4.3.2. Genero-indarkeriatik babesteko neurrien protokoloa berraztertzea: haren birformulazioa baloratzea.	Berdintasun Batzordea	■				
	4.4.2. Protokolo eguneratuak argitaratzea eta plantillari komunikatzea.	Berdintasun Batzordea	■				



3. BERDINTASUNERAKO III. PLANA (2019-2023)

3.3. BALIABIDEAK eta ADIERAZLEAK

Bi motatako baliabideak bideratzen dira ITELAZPIren Berdintasunerako III. Plana garatu eta bultzatzera:

- **Urteko aurrekontu espezifikoak**, 10.000 €-koa, hornigaien kanpo-kontratazioarako (adibidez: lila puntuaren urteko egutegiak, argazki-lehiaketa,...), laguntza tekniko espezializaturako, berdintasunari buruzko prestakuntzarako, eta abar.
- Berdintasun Batzordea osatzen duen **pertsonalaren barne-orduak**, eta baita planaren ekintzetan inplikaturako gainerako langileenak ere. **Ordu horien aurreikuspen** bat egin da, haien barne-kostuaren aurreikuspenarekin batera.

Beste alde batetik, Planaren **helburu bakoitzak adierazle** multzo bat du lotuta; adierazle horietarako, zenbait kasutan, erreferentziako balioak daude eskura, aurretik egindako diagnostikoaren arabera.



3. BERDINTASUNERAKO III. PLANA (2019-2023)

3.3. BALIABIDEAK eta ADIERAZLEAK



BALIABIDEAK eta ADIERAZLEAK

1. ARDATZA: BERDINTASUNERAKO KULTURA ETA KUDEAKETA	HELBURUAK	BALIABIDEAK (2019-2023)		NEURKETA		
		Dedikazioa (Barne-orduak)	Barne-gastua (€)	ADIERAZLEAK	2019ko Diagnostikoaren balioa	
					Emakumeak	Gizonak
1.1. Berdintasunezko erakunde-kultura bat sustatzea.	100 ordu	4.500 €	Berdintasunari buruzko gogobetetasuna	6,4	7,2	
			Genero-estereotipoek ITELAZPIko emakumeen lan-baldintza eta aukeretan eragina dutela uste duten pertsonen %	% 60	% 0	
			Sexuagatik erakundearen diskriminatuta sentitu diren pertsonen %	% 40	% 11	
1.2. Berdintasunerako sarea konpartitzea eta bertan parte hartzea.	350 ordu	15.750 €	Parte hartzen den sareen kopurua	2		
			Sareetan konpartitzen diren ITELAZPIren praktiken kopurua	1		
1.3. Berdintasunerako Plana kudeatzea eta bultzatzea.	250 ordu	11.250 €	Berdintasun Batzordeak urtean egindako saioren kopurua	4		
			Plana garatzeko urteko aurrekontu espezifikoa	10.000 €		
			Urtean planifikatutako/egindako ekintzen %	% 77		



3. BERDINTASUNERAKO III. PLANA (2019-2023)



BALIABIDEAK eta ADIERAZLEAK

2. ARDATZA: PERTSONEN KUDEAKETA	HELBURUAK	BALIABIDEAK (2019-2023)		NEURKETA		
		Dedikazioa (Barne- orduak)	Barne- gastua (€)	ADIERAZLEAK	2019ko Diagnostikoaren balioa	
					Emakumeak	Gizonak
2.1. Emakumeak alor teknikora iristearen alde egitea, ITELAZPIra sartzeko prozesu teknikoaren bidez.	60 ordu	2.700 €	Plantillan dauden emakumeen %	% 35	-	
			Alor teknikoan dauden emakumeen %	% 18	-	
2.2. Berdintasunezko prozesu bat bermatzea barne-promoziorako.	25 ordu.	1.125 €	Zuzendaritza-postuetan dauden emakumeen %	% 25	-	
			Postu taktikoetan dauden emakumeen %	% 38	-	
2.3. Sexuagatik diskriminatzen ez duen ordainsari-sistema bat segurtatzea.	40 ordu	1.800 €	Soldata-arrakala globala	-% 12		
			Soldata-arrakala "Postu taktikoetan"	-% 17		



3. BERDINTASUNERAKO III. PLANA (2019-2023)



BALIABIDEAK eta ADIERAZLEAK

3. ARDATZA: SENTSIBILIZAZIOA ETA BERDINTASUNERA ZUZENDUTAKO TRAKZIOA	HELBURUAK	BALIABIDEAK (2019-2023)		NEURKETA		
		Dedikazioa (Barne-orduak)	Barne-gastua (€)	ADIERAZLEAK	2019ko Diagnostikoaren balioa	
					Emakumeak	Gizonak
		3.1. Gure pertsonalaren prestakuntza eta inplikazioa sustatzea, berdintasunaren alorrean.	375 ordu	16.875 €	Berdintasunari buruzko prestakuntza-orduak, urtean	% 4
Berdintasunarekin lotutako barne-argitalepnak, urtean	Ez da aplikatzen					
3.2. Berdintasunari begira arduratsua den kanpo-kontratazioa sustatzea.	250 ordu	11.250 €	Berdintasunerako klausulen betearazpenaren %, kontratazio-pleguetan	Ez da aplikatzen		
			Azpikontratetan dauden emakumeen %	% 10	-	
3.3. Berdintasunaren aldeko sentsibilizazioa areagotzea gure jarduera-eremuan.	500 ordu	22.500 €	M8, A25 eta O11ren inguruko jarduera espezifikoak (komunikazioak, eta abar...)	Ez da aplikatzen		



3. BERDINTASUNERAKO III. PLANA (2019-2023)



BALIABIDEAK eta ADIERAZLEAK

4. ARDATZA: LAN-INGURUNE OSASUNGARRI ETA ERANTZUNKIDEA	HELBURUAK	BALIABIDEAK (2019-2023)		NEURKETA		
		Dedikazioa (Barne-orduak)	Barne-gastua (€)	ADIERAZLEAK	2019ko Diagnostikoaren balioa	
					Emakumeak	Gizonak
4.1. Itelazpiko plantillaren behar pertsonal eta familiarak erakundearen berezko beharrekin uztartzearen aldeko neurriak bultzatzea.	50 ordu	2.250 €	Kontziliazio- eta malgutasun-neurrei buruzko gogobetetasun maila (10etik)	7,6	8,3	
			Erakundeak lana eta bititza pertsonala uztartzea ahalbidetzen duela uste duten pertsonen %	% 80	% 89	
			Kontziliazio-neurriez baimatzeak aukera profesionalak galtzera eramaten duela uste duten pertsonen %.	% 40	% 33	
4.2. Genero-ikuspegia gure osasunaren prebentzio-sisteman integratzea.	100 ordu	4.500 €	Euren lanarekin duten motibazio maila	6,2	6,7	
			Daukaten lan-karga euren lan-baldintzetarako egokia dela uste duten pertsonen %	% 40	% 44	
			Prebentzio-planeko neurrien artean, genero-ikuspegiarekin zerikusia dutenen kopurua	0		
4.3. Sexu-jazarpenik eta sexuak eragindako jazarpenik gabeko lan-ingurune bat bermatzea.	50 ordu	2.250 €	Azken 4 urteetan salatutako sexu-jazarpeneko kasuak	0		
			Sexuak eragindako jazarpenagatik azken 4 urteetan salatutako kasuak	0		



3. BERDINTASUNERAKO III. PLANA (2019-2023)

3.4. URTEKO KUDEAKETA, JARRAIPENA ETA PLANGINTZA



ORGANO KUDEATZAILEA

Berdintasun Batzordea da ITELAZPIren Berdintasun Plana orokorrean bultzatzeaz eta kudeatzeaz arduratzen den barne-organoa. Aurreko Planean ezarritako ildotik jarraituz, eta ahalik eta langile gehienen parte-hartzea sustatzeko xedez, honako tresna hauek mantentzen dira:

- **Batzorde iraunkorra**, partaide hauekin: Zuzendaritza (emakume bat), Administrazio-sailaren ordezkaria (emakume bat) eta arlo teknikoaren ordezkaria (gizon bat).
- Gainerako langileen **txandakako parte-hartzea**, urtebeteko iraupenaz, ITELAZPIin dauden prozesuetako parte-hartzaileen presentzia bermatzeko.



PLANGINTZA ETA JARRAIPENA

Planaren plangintza eta jarraipena ITELAZPIk bere esku duen **“Sharepoint” barne-tresnaren** bidez egiten da.

Tresna horretatik kudeatzen dira ITELAZPIk kudeatzen dituen prozesu eta plan guztiak. Izan ere, tresna honek ahalbidetzen du Planaren urteko plangintza egitea, **planifikatutako ekintzen jarraipena** gauzatzea eta haren betetze maila baloratzea. **Planaren adierazleen jarraipena** ITELAZPIren prozesuen gainerako adierazleekin batera egiten da, **ad-hoc excel tresna** baten bitartez.

Aldi berean, **“Sharepoint” tresnak komunikazio-plataforma** moduan funtzionatzen du plantilla osoarentzat.